

BIZKAIA SORTZAILEA PROGRAMA

JUSTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK 2025

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

- **Bideragarritasun- eta merkatu-azterlanak, marketing azterlanak eta txosten teknikoak**

Bideragarritasun-azterlanak, bazkideak bilatzea eta merkatu-azterketak; analisiak, entseguak; proiektua garatzeko beharrezkoak diren proiektu teknikoak eta aurrekarien bilaketari eta babes teknikoaren egoeraren analisiari buruzko txostenak.
- **Produktuaren edo zerbitzuaren kontzeptua, ezaugarriak eta oinarrizko funtzionalitateak garatzea**

Merkaturatu ezin diren prototipoak definitzeko eta garatzeko gastuak sartzen dira, prototipoak ezin direnean amaierako produktutzat jo.

Hauek dira diruz lagunduko den gastua:

 - Prototipoa zuzenean talde sustatzaileak egiten badu, prototipoa egiteko behar diren materialen gastuetarako laguntza emango da.
 - Moldeak, aurremoldeak, tresnak, trokelak eta halakoak behar dituzten prototipoei dagokienez, gutxieneko pieza-kopurua ekoizteko balio duen eta gero erabilezina izango den aurremolde bat baino ez da ordainduko.

Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso gastu hauek:

 - Produktu berriak garatzeko proiektuak, baldin eta proiektua amaitu ondoren enpresaren produktuak jasotzen dituen paper-zorroan sartuta ez badaude.
 - Enpresan dagoeneko badauden produktuak berritzeko, hobetzeko edo aldatzeko (funtzionaltasunak, estetika, lege araudia, etab.) proiektuak.
 - Lehen prototipoaren aldaketak edo hobekuntzak
- **Proiektua garatzeko kanpoko aholkularitza.**
- **Jabetza intelektual edo industrial babestea, erregistroak, ziurtagiriak eta homologazioak**

Ondorengo gastuak lagunduko dira, betiere barneko garapenak babesteko gastuak badira:

 - Teknikaren egoerari buruzko txostenak, asmatze-patentea (estatukoa, Europakoa edo nazioartekoa PCT), erabilgarritasun-eredua, diseinu industrial, marka nazionala eta Batasunekoa, zeinu bereizgarriak eta egile-eskubideak.

Lehen inskripzioaren gastuak bakarrik ordainduko dira eta kanpoan geratzen dira berritzeak, bosturtekoek eta antzekoek eragindako gastuak.

Patenteak erostetik edota erabiltzetik eratorritako gastuak ez dira diruz lagungarriak.
- **Bidaiek egitea eta azoketan parte hartzea**

Proiektuaren taldeko pertsonen egindako gastuetarako dirulaguntza emango da:



- Azoketan parte hartzea: izena emateko gastuak, erakustokien alokairuarenak, jarduera berria aurkezteko gelen alokairuarenak eta prototipoak eta materialak garraiatzeko behar diren ibilgailuen alokairuarenak.
- Joan-etorriak, garraio publikoan eta hegazkinean. Kanpo uzten dira taxien gastuak eta norberaren ibilgailuarenak.
- Garraio publikoa erabiliz gero, bidaia-txartelak aurkeztu ahal izango dira faktura gisa.
- Ostatu hartzea (ostatua eta gosaria). Kanpo uzten dira hotelean egindako bazkariak, telefono gastuak eta gastu estrak.

Ez dira diruz lagunduko enpresa batek izan ditzakeen kokapen desberdinen arteko bidaiak edo joan-etorriak.

- **Enpresa abiaraztea**

- Enpresa berriaren irudi korporatiboaren diseinua.
- Katalogoak, diptikoak, triptikoak eta aurkezpenak: aipatutakoak diseinatzea eta hainbat euskarritan inprimatzea (papera, digitala, bideoa).
- Publizitatea: prentsan, aldizkari espezializatuetan, irratian, telebistan eta Interneten iragarkiak jartzea.
- Internet: domeinua erregistratzea, web orriak diseinatzea, zerbitzari batean egotea urte batean, urte bateko SEO posizionatzea, Google Adword edo bestelakoak.

- **Proiekturako jarritako langileen barruko gastuak**

Soldata-gastuak eta entitate eskatzailearen konturako karga sozialak sartzen dira.

Gainera, EJZko altaren 1º data 2023/01/01 edo gerokoa duten enpresa berrien kasuan:

- **Enpresa berria sortzeagatiko prima**

Eskudirutan ordaindutako kapital soziala.

- **Bizkaian negozio-lokala errentan hartzea**

- **Negozioa garatzeko pertsona bat kontratatzea**

Soldata-gastuak eta entitate eskatzailearen konturako karga sozialak sartzen dira.

EPEAK

Diruz lagundu daitezkeen gastuak burutzeko epea:

Gastuak 2024/01/01aren eta 2026/12/31ren bitartean egin beharko dira eta 2027ko urtarrilaren 31n benetan ordaindu behar dira.

Nolanahi ere, eskabideak aurkezteko epea bukatzen denean, sozietatearen kapitala eskrituran eta eskudirutan ordainduta, errentamendu-kontratua formalizatuta eta negozioa garatuko duen pertsona kontratatuta egon beharko dira.

Fakturak eta ordainagiriak aurkezteko azken eguna: 2027/01/31.



DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Enpresak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Tarteko eta amaierako justifikazioei dagokien jarduketan memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azaltzen dituen, Ekonomia Sustatzeko Sailaren web gunean dagoen ereduaren arabera ([www.bizkaia.eus/Enpresen eta enpleguaren Sustapena/Ekintzailtza/Ekintzailtza/Berritzeko eta sortzeko gaitasuna/Bizkaia Sortzailea](http://www.bizkaia.eus/Enpresen_eta_enpleguaren_Sustapena/Ekintzailtza/Ekintzailtza/Berritzeko_eta_sortzeko_gaitasuna/Bizkaia_Sortzailea)).
- Beste betebeharrak justifikatzeko memoria-Enpresak, Ekonomia Sustatzeko Sailaren web gunean dagoen ereduaren arabera ([www.bizkaia.eus/Enpresen eta enpleguaren Sustapena/Ekintzailtza/Ekintzailtza/Berritzeko eta sortzeko gaitasuna/Bizkaia Sortzailea](http://www.bizkaia.eus/Enpresen_eta_enpleguaren_Sustapena/Ekintzailtza/Ekintzailtza/Berritzeko_eta_sortzeko_gaitasuna/Bizkaia_Sortzailea)).
- Gastua 15.000 euro edo gorakoa bada (BEZa sartu gabe) eta eskabidea aurkezten denean kontratatuta ez badago, 3 eskaintza/aurrekontu eta aukeratutako eskaintza justifikatzeko txostena.
- Lagundutako jardueretako edozein egiteko kontratuak, behar bezala formalizatutakoak, halakorik, behar izanez gero.
- Egindako bideragarritasunari eta merkatuari buruzko azterlanak, egindako txostenak eta marketin plana, hala badagokio.
- Egindako aholkularitza lanei buruzko azterlana eta bere ondorioak, halakorik behar izanez gero.
- Proiekturako jarritako langileen barruko gastuak eskatu badira:
 - Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean dauden pertsonen kasuan, justifikazioaren aldiko “langileen zerrenda izenduna” (LZI) agiri guztiak.
 - Langile autonomoen kasuan, justifikazio-aldiari dagozkion kotizazio-oinarrien txostenak (IBC)..
- Negozioa garatzeko pertsonaren “langileen zerrenda nominala – LZI”, eskabidea egitean aurkeztu ez direnak.
- Fakturak eta dagozkion ordainketa-ziurtagiriak, dokumentu bakarra erabiliz, diru laguntza jaso dezaketen gastu bakoitzerako.
50 euro baino gutxiagoko fakturak dokumentu bakar batean aurkeztu beharko dira, hornitzaileka sailkatuta.

Adjudikatutako dirulaguntza proiektuaren gauzate-mailaren arabera ordainduko da eta 3 ordainketa egingo dira, gehienez. Lehen ordainketa egiteko diruz lagundutako gastuen %20 justifikatua egon beharko da, bigarren ordainketa egiteko diruz lagundutako gastuen %40 eta hirugarren ordainketarako diruz lagundutako gastuen gainerakoa.

Dirulaguntza jaso dezaken gastua izango da erakunde hornitzaile independenteei azpikontratututako lanaren zenbatekoa. Enpresa sustatzaileko langileek edo bazkideek egindako lanak ez dira diruz lagunduko, Diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27.7.d) artikuluan ezarritako kasuetan izan ezik.